

INDUSTRIAKO KONTUEN AURRERAPENA, 2005. URTEA

Euskal Autonomia Erkidegoko industriak %4,4ko hazkunde erreala izan zuen 2005. urtean


Datu hauekin, industri jardueraren goranzko joera berresten da, azken hiru ekitaldietan

2005eko kontabilitate ekitaldian, Euskal Autonomia Erkidegoko industri sektoreak %4,4ko hazkunde erreala izan zuen aurreko urtearen aldean, EUSTATen datuen arabera. Aurreko urtean lortutako erregistroak gainditzeko dituen segidako hirugarren urtea dugu hau. Beraz, 2002az geroztik azelerazio profila dagoela ikusten da, urte horretan inflexio-puntua jazo baitzen, %1,2ko tasarekin. Hurrengo urtean, 2003an, industri jardueraren hazkundeak %2,9ra iritsi zen, eta 2005ean aurreko mailak gainditu zituen, %4,4ko hazkundearekin.

Estatuarekin erkatuta, euskal industriaren ibilbidea espainiarraren gainetik egon da azken lau ekitaldietan, 2005ean espainiarraren hazkundeak lau puntu baino gehiagotan gaindituz: %4,4ko hazkundeak Euskal Autonomia Erkidegoko industrian eta %0,3koa estatuan.

2005ean, okupatutako enplegua (lanpostuak alegia) %0,9 jaitsi zen Euskal Autonomia Erkidegoko industrian, 2004ko ekitaldiarekin alderatuta; 249.000 pertsona ingurura iritsi da.

Industriako balio erantsiaren bilakaera. Kateatutako bolumen-indizea. 1996-2005(a)



(a): Aurrerapena
Iturria: Eustat

Industriaren hazkundera Araban izan da handien. 2005ean, Arabako hazkunde-tasa %5,4 izan da, batez bestekoa baino puntu bat handiagoa alegia. Bizkaiko urteko hazkundera %5,0 izan zen, erkidegoko batez bestekoa baino altuagoa beraz (puntu erdi baino gehixeago). Gipuzkoako industria, ordea, puntu bat eta bi dezima azpitik geratu zen (%3,2).

Sektoreen ikuspegitik, industri jarduneko adar batzuen eta besteen artean ezberdintasunak daude. *Metalezko materialak eta metalezkoak ez diren materialak* (%21,3) baztertuko ditugu, euskal industriaren egituran pisu erlatibo txikia dutelako. *Material elektrikoaren* adarrak izan du hazkunde-tasarik handiena: %13,1. Haren atzetik, *energia elektrikoa, gasa eta ura* doaz, urtean %11,4ko erritmoan hazten ari direnak. Gure industriaren egitura pisu handia duten zenbait azpisektorek, hala nola, *Garraioko materiala, Makineria eta Kautxua eta plastikoa*, %6,9, %4,3 eta %4,8ko goranzko bilakaera dute, hurrenez hurren. *Industria kimikoa* (%8,7) eta *Papera, edizioa eta grafikoak* (%4,6) sektoreek emaitza onak izan dituzte balio erantsiaren sorreran, 2005ean. *Metalurgia eta metalezko artikuluen* adarra industriako balio erantsiaren %31,0 da. Hazkunde txikiagoa izan du ordea: %0,7.

Hiru azpisektorek soilik izan dute emaitza negatiboa euren balio erantsiaren bilakaeran: *Larruaren eta oinetakoen industria* (-%1,2), *Petrolioaren errefinatzea* (-%3,2) eta *Ehungintza eta jantzigintza* (-%12,0).

Industri balio erantsi gordinaren bilakaera. Kateatutako bolumen-indizeen hazkunde-tasak eta prezio arruntak. Mila eurotan

Euskal AE	2005(a)	Δ%
04. Metalezko eta ez-metalezko meak	174.211	21,3
05. Elikagai-industria	858.340	2,3
06. Ehungintza eta jantzigintza	86.054	-12,0
07. Larrugintza eta oinetakogintza	9.805	-1,2
08. Zurgintza	226.473	4,1
09. Papera, argitalpena eta grafikoak	726.534	4,6
10. Petrolioaren fintzea	346.215	-3,2
11. Kimika-industria	567.495	8,7
12. Kautxua eta plastikoa	1.045.340	4,8
13. Ez-metalezko industria	527.640	4,6
14. Metalgintza eta metalezko artikulak	4.664.140	0,7
15. Makineria	1.708.130	4,3
16. Material elektrikoa	948.456	13,1
17. Garraio-materiala	1.268.819	6,9
18. Bestelako manufaktura-ind.	473.805	1,4
19. Energia elektrikoa, gasa eta ura	1.396.898	11,4
GUZTIRA	15.028.355	4,4
Lurralde historikoak	2005(a)	Δ%
Araba	3.276.660	5,4
Bizkaia	6.256.319	5,0
Gipuzkoa	5.495.376	3,2

(a): Aurrerapena
Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula

Tel:+34-945-01 75 09 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>